

IRAKURMENA: A1

Etxebizitzak alokairuan



Egoera: alokairuan bizitzeko etxebizitza baten bila ari zara Gasteizen.

ARANTZABELA	Etxe berria. Bi logela, komun bat, egongela eta sukaldea ditu. Bigarren pisua. Ez du igogailurik. 600€ hilean.
LAKUA	Gela bakarreko apartamentua, altzariz hornitua. 4. solairuan. Igogailua du. Autobus-geltokitik gertu. 980€ hilean.
ALDE ZAHARRA	Bi logela ditu, amerikar sukaldea eta komun bakarra. 750€ hilean.
ABETXUKO	Gela bat alokatzen dut 4 logelako pisu batean. Altzariz hornitua dago. Pisuak 80 m2 ditu. Oso argitsua da. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidea. Ez erretzaileentzat. 300€ hilean.
FORU PLAZA	3 logela, komun bat, egongela eta sukaldea. Terraza du. Ondo komunikatua. 950€ hilean.
ARMENTIA	800€ HILEAN. 90m2-ko etxebizitza. Oso argitsua. Bi logela, egongela, 2 komun eta garajea ditu. Ikastolaren eta kiroldegiaren ondoan dago.

1. Non dago hiru logela dituen etxebizitza?

- A) Abetxuko auzoan.
- B) Lakua auzoan.
- C) Foru plazan.

2. Non ezin daiteke erre?

- A) Gela bakarreko apartamentuan.
- B) Lau logela dituen etxebizitzan.
- C) Foru Plazan dagoen etxebizitzan.



3. 80m²-ko etxebizitza zein solairutan dago?

- A) 1. solairuan.
- B) 4. solairuan.
- C) Ez du jartzen iragarkian.

4. Zein etxebizitzak ditu bi komun?

- A) Kiroldegiaren ondoan dagoenak.
- B) Arantzabela auzoan dagoenak.
- C) Amerikar sukaldea duenak.

5. Zein da oso argitsua?

- A) Terraza duen etxebizitza.
- B) Abetxukokoa.
- C) Abetxukokoa eta Armentiakoa.

